



OÑATI INTERNATIONAL INSTITUTE
FOR THE SOCIOLOGY OF LAW
—
OÑATIKO LEGE-SOZIOLOGIAKO
NAZIOARTEKO ERAKUNDEA
—
INSTITUTO INTERNACIONAL
DE SOCIOLOGÍA JURÍDICA DE OÑATI



OÑATI
dabilen herria

“OÑATIKO UDALA” BEKA

1. Elkarlan akordioaren esparrua hauxe da: udal autogobernurako gakoak diren gaiak hobeto ulertzen lagun dezaketen proiektu sozio-juridikoak finantzatzea. Modu horretan, gai horiek politiken gaineko aholku baliagarrien iturburu izan daitezke Oñatiko Udalarentzako. Proiektu horiek mota hauetakoren batekoak izan beharko dute: ikerketa proiektuak, doktoretza azterlanak edota fenomeno juridikoak aztertzen dituzten gizarte zientzialarien arteko nazioarteko lankidetzaren emaitzak.

Oñatiko Udala Bekaren deialdiaren oinarriak urtero argitaratuko dira Institutuaren web orri ofizialean, alderdi sinatzaileek alde aurretik adostuta. Hainbat punturi buruzko informazioa jasotzen da bertan: zein proiektu mota aurkeztu daitezkeen, ikertzaileak nortzuk izan daitezkeen, epeak, proiektuak gauzatzeko baldintzak eta sinatzaileek lehenetsi nahi dituzten gaiak.

2. Beka deialdira aurkeztu daitezkeen proiektuak:

1. ildoak - Ikerketa proiektuak

Tokiko autogobernuaren, hiritartasun aktiboaren eta nazioarteko alderdi soziojuridikoak aztergai dituzten ikerketa proiektuak.

Ikerketa amaitutzat emateko, zientzia artikulua bat prestatu beharko da gutxienez.

2. ildoak – Doktoretza azterlanak

Oñatiko Institutoarekin lotura eta ospe aski ezaguna duen doktoretza programa soziojuridiko batean matrikula eta egoitza gastuak estaliko dira, baldin eta landutako Gaia tokiko autogobernuaren, hiritartasun aktiboaren eta nazioarteko alderdi soziojuridikoekin lotura badauka.

3. ildoak – Nazioarteko lankidetzak

Arlo sozio-juridikoetako ikertzaileen arteko lankidetzarako mundu mailako sareak sortzeko proiektua landu eta gauzatzeko, bereziki LSNE ekimenen ardatz izan dadin mundu osoko elkarte sozio-juridikoak harremanetan aritzeari dagokionez. LSNErekin batera lankidetzak proiektu batean jardungo da, eta nazioarteko lankidetzako produktuak zein sareak sortuko dira.



OÑATI INTERNATIONAL INSTITUTE
FOR THE SOCIOLOGY OF LAW
—
OÑATIKO LEGE-SOZIOLOGIAKO
NAZIOARTEKO ERAKUNDEA
—
INSTITUTO INTERNACIONAL
DE SOCIOLOGÍA JURÍDICA DE OÑATI



OÑATI
dabilen herria

Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak irmoki eta fideltasun osoz helduko dio beka hau sortu zuen espirituari. Hori horrela, honako pausoak emango ditu (4.000€):

- a) Lehen ordainketa, ekarpenaren % 20koa, ikertzaileari hautatua izan dela jakinarazi eta hilabetera egingo du.
- b) Bigarren ordainketa, ekarpenaren % 50ekoa, ikerketa lanaren garapenaren berri ematean, txosten baten bitartez.
- c) Hirugarren ordainketa, gainerako % 30ekoa, proiektua amaitutakoan.

Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak lehentasuna izango du ikerketa bere argitalpen zerbitzuaren bidez argitara emateko, hala paper formatuan, nola elektronikoan. Horrez gainera, eta hala balegokio, argitalpena Erakundearen egoitzan ere aurkeztuko litzateke, ekitaldi publiko batean, bekadunarekin batera.

Hitzarmenak xedatutakoaren arabera, bestalde, beharrezkoa da proiektuaren garapena edo emaitza argitara ematean edota publikoki aurkeztean Oñatiko Udala Bekari eta LSNEri aipua egitea. Bestalde, proiektua gauzatzeari amore emango balitzaio edota gauzatu ez balitz, jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko luke onuradunak.

Aurkeztu beharreko agiriak:

Formularioa

Hautagaiak LSNE-ko Masterrean matrikulatuta egon beharko dira, Masterra bere garaian eginda edo LSNErekin harreman estua duten ikerlariak izan beharko dira, modu aktiboan partez hartuz honen programaren batetan. Hautagaiak proiektua garatu eta aurkezterakoan Oñatin bizitzen egon behar dira. (azken betebeharrak honetatik salbuetsita egongo dira ikasturte honetan masterrean matrikulatuta dauden ikasleak).

Horrez gain, hautagaiak interesa agertu beharko dute tokiko autogobernuaren alderdi soziojuridikoa, hiritartasun aktiboa eta nazioarteko inguruan.

- Ikerketa proiektuari buruzko xehetasunak jasotzen dituen plana (2-5 orri);
- Laburpen bat – proiektuaren titulua – eta hitz gakoak (“key words”).
- Bibliografia;
- Hautagaiaren Curriculum Vitae;
- Behin-behineko aurrekontua eta kronograma;



OÑATI INTERNATIONAL INSTITUTE
FOR THE SOCIOLOGY OF LAW
—
OÑATIKO LEGE-SOZIOLOGIAKO
NAZIOARTEKO ERAKUNDEA
—
INSTITUTO INTERNACIONAL
DE SOCIOLOGÍA JURÍDICA DE OÑATI



OÑATI
dabilen herria

- Ikerketa-lanaren egiletza eta originaltasun aitortzen sinatua.

2021 beka deialdiko hautagaitzak posta elektronikoz **FORMULARIOA** betez, **2021ko otsailaren 26, 13:00ak baino lehen**. (Bekari buruzko behin betiko erabakia 2021ko martxoak 24a baino lehen hartuko da).

Behin betiko proiektua posta elektronikoz s.arrese@iisj.es eta m.ramstedt@iisj.es helbideetara irailaren 7a 13:00ak baino lehen bidali beharko da.

Erabaki batzordeko kideak:

IISL ordezkariak:

- Joxerramon Bengoetxea , IISL Masterreko koordinatzailea ta OC ko Zientzi Zuzendaria.
- IISL ko Zientzi Zuzendaria.

Udaleko ordezkariak:

- Izaro Elorza, Alkatea.
- Alaitz Kortabarria, Hezkuntza batzordeburua.
- Ainhoa Galdos, EAJ alderdiaren ordezkaria.
- Iñaki Akizu, Hezkuntza teknikaria.